* Argazkiak aurkezteko epea:

UZTAILAREN 18ra arte

OLAIZAGA Kiroldegian (943 744415).

Pk 32, 20870 ELGOIBAR.

* Sari banaketa: Abuztuaren 23an,

20:30etan PLENO ARETOAN.

* ERAKUSKETA Kultur Etxeko SOTOAN,

Abuztuaren 23tik 30era.

(19:00 - 21:00).

**MAILAK**

* Herriko saria
* Gazte saria: 35 urtera arte,
* Orokorra: 35 urtetik gorakoentzat
* OINARRIAK: www.elgoibar.org

# ELGOIBARKO

## Kirol ARGAZKIEN Lehiaketa



folleto:folleto 19/6/08 13:05 Página 2

# ELGOIBARKO KIROL ARGAZKI LEHIAKETA

**ANTOLATZAILEA: ELGOIBARKO UDALA(Gazteria Saila eta Udal Kirol Patronatua), Ongarri argazkilari elkartearekin lankidetzan.**

**PARTEHARTZAILEAK: Argazki lehiaketa honetan nahi duten zaletu guztiek har dezakete parte: edozein adinetako argazkilari zaletuek, profesionalek nahiz amateurrek.**

**GAIA: Kirola arlo guztietan.**

**MODALITATEA: Paperean egindako argazkiak, koloretan nahiz zuri beltzean. Irudiak tratatzeko edozein prozedura edo teknika onartuko da.**

**AURKEZPENA: Argazkien euskarria 30 X 40 zentimetrokoa izango da ezinbestean, eta kartulina finez eginikoa.**
**Euskarri horren barruko argazki-paperaren neurria 24 X 30 zentimetrokoa izango da.**

**LANAK: Egileek, gehienez, 4 argazki aurkez ditzakete. Lanek originalak beharko dute izan. Ezin dira aurkeztu beste lehiaketa batean saritutako lanak.**

## MAILAK ETA SARIAK

**1) HERRIKO SARIA: (Argazki hoberena); Adin guztietako elgoibartarrak, edo-eta bertan bizi direnak: 200 €**

**2) 35 URTERARTE:**
**35 urte bitarteko elgoibartarrak nahiz beste herriren batekoak.**

**1. Saria: 300€**
**2. Saria: 200€**

**3) SARI OROKORRA (35 urtetik gorakoentzat: elgoibartarrak nahiz beste herriren batekoak):**

**1.Saria: 300€**
**2. Saria: 200€**

**LANEN IDENTIFIKAZIOA: Argazki bakoitzaren atzean izenburua edo leloa bakarrik jarriko da.**
**Aurkeztutako argazki bakoitzarekin batera, kartazal bat emango da izenburu edo lelo bera duena.**
**Kartazal horren barruan lehiakidearen datuak jasoko dira; izendeiturak, NANa, adina, helbide osoa eta telefono zenbakia.**

**LANAK AURKEZTEKO EPEA ETA LEKUA: Lanak eskura ekarri daitezke nahiz postaz bidali (bidalketa gastuak egilearen kontu).**
**Uztailaren 16rako aurkeztu beharko dira honako helbide honetan: Olaizaga kiroldegia, 32 posta kutxatila, San Roke kalea 1, 20870 Elgoibar.**

**AUKERAKETA EGUNA: Uztailaren 21a.**

**EPAIMAHAIA: Elgoibarko Udaleko lau ordezkari, Ongarri argazkilari elkarteko ordezkari bat eta kirolari bat.**
**Epaimahaiaren erabakia aldaezina da.**

**SARI BANAKETA: Abuztuak 23, arratsaldeko 8:30etan Pleno aretoan.**

**ERAKUSKETA: Lehiaketara aurkeztutako argazki guztiak edo epaimahaiak aukeratutakoak, abuztuaren 23tik 30era erakutsiko dira Kultur Etxeko sotoan.**

**LANAK JASOTZEKO EPEA: Argazki sarituak antolatzaileen esku geratuko dira, eta berauek izango dute argitaratzeko eskubidea, beti ere, egilearen izena aipatuz.**
**Saritu gabeko lanak jasotzeko epea irailaren 17tik 29ra bitartekoa izango da. Lanak Olaizaga kiroldegian jaso ahal izango dira.**
**Epe horren barruan jasotzen ez diren lanak antolatzaileen esku geratuko dira.**

**ARGAZKIAK GALTZEA EDO LAPURTZEA: Antolatzaileek hitz ematen dute argazkiak ondo zainduko dituztela, baina ez da beraien ardura izango bidean edo erakusketa egiten den bitartean galtzen edo hondatzen badira, edo lapurtzen badituzte.**
**Partaideek berea gain hartuko dute asegurua.**

**OINARRIAK ONARTZEA: Lehiaketa honetan parte hartzeko, oinarri hauek guztiak onartu beharko dira.**